# Iturraskarri

## Bideak eta arraskak berritzeko egitasmo soziala

*Proyecto social para la recuperación de caminos y lavaderos*



*Egiarretako iturria eta garbilekua berritu aurretik*
*Fuente y lavadero de Eguiarreta sin rehabilitar.*



*Berriketa lanak.*
*Trabajos de rehabilitación.*



*Egiarretako iturria eta garbilekua egungo itxurarekin*
*Estado actual de la fuente y lavadero de Eguiarreta .*

Iturraskarrik, Enplegu sozialeko proiektutan partaide direnei lan-formazioa eskeintzeaz gain, zonaldeko natura eta kultur ondarearen balioa haunditu, parte-hartzea sustatu eta ingurua turismo errekurtsoz hornitzen du.

Guztien intereserako egitasmoa da, non esku hartze integral eta gizarteratze ikuspuntu batekin sektore ezberdinen nahiak biltzen diren.

*Iturraskarri además de proporcionar trabajos de carácter formativo a los participantes de los proyectos de Empleo Social Protegido, revaloriza recursos culturales y naturales de la zona, fomenta la participación y dota a la comunidad de recursos turísticos.*

*Es un proyecto de interés general, integral e integrador, en el que confluyen intereses sectoriales.*

### Bide-sareak

Berreskuratze proiektu honek jende artean bideen erabilera sustatu, hauekiko maitasuna eta begirunea indarberritu eta historian izan duten garrantziaz ohartarazteaz gain, nekazal eta abeltzaintza munduko erabilerarekin bateratzea eta osatzea du helburu.

Azken urte hauetan landa garapena produkzioan oinarritu da bereziki, zenbaitetan antzinako bideak baztertuz eta bestetan deuseztatuz, paisai eta kultur balioa eraldatuz. Bide- sare honetan, berriro ere, paseoaz gozatzeko aukera izanen dugu, norberak herriz –herri ibilaldi lasaiak burutuz eta inguruko paisaiaz gozatuz.

Arruazu, Irañeta, Arakilgo bailara eta Irurtzun batzen dituen oinarrizko bide- sarea aurkezten dizuegu. Ibilbidea lursail pistetatik eta bide zaharretatik egiteko prestatua dago nagusiki, nahiz eta tarte txiki batzuetan trafiko gutxiko bideberrietatik pasa.

### *Red de caminos*

*Este proyecto de recuperación quiere impulsar el uso público de los caminos, recobrar el aprecio por ellos, su valor patrimonial, histórico y evocador, de manera complementaria y compatible con la actividad agropecuaria.*

*En los últimos tiempos el desarrollo rural se ha dirigido casi exclusivamente a la mejora de los aspectos productivos, condenando al olvido y eliminando en ocasiones los caminos antiguos y simplificando el valor paisajístico y cultural. En esta red de caminos podemos disfrutar del paseo, del viaje sosegado, del paisaje y del placer de desplazarnos de un pueblo a otro por nuestros propios medios.*

*Proponemos una red básica que comunica los pueblos de Arruazu, Irañeta, Valle de Arakil e Irurtzun. La mayor parte del recorrido se hace por pistas parcelarias y por caminos antiguos pero en algún tramo corto discurre por carretera asfaltada con muy poco tráfico.*




## SATRUSTEGI




### Biztanleria / *Población* (2009)

44

### Historia

1341 Lope Garsia gudalburu lazkaotarrak eta bere gizonek Berama, Satrustegi eta Ihabardik 30 idi eta behi eraman zituzten.

*El jefe de armas lazkaotarra Lope Garsia y sus hombres se llevaron de Berama, Satrustegi e Ihabar 30 bueyes y vacas.*



Iturraskarri egitasmoaren bidez berritutako iturria
*Fuente rehabilitada con el proyecto Iturraskarri*

### Hirigintza / *Urbanismo*

Satrustegiko etxeak egoera onean daude. Haietako askotan etxearen izena irakur liteke.

*Las casas de Satrustegi están en buen estado. En muchas de ellas se puede leer el nombre de la vivienda.*

### San Martín eliza
### Iglesia de San Martín

XVI. mendeko eraikina, baina bere perimetroko paretetan Erdi Aroko elementuak izan ditzakeena. Elizako sarrera aterpe batek babesten du. Haren gainean, nitxo batean San Migel Goi Aingeruaren irudi bat da, borroka jarreran. Harrian egina dago.

*Templo del siglo XVI, pero que en los muros perimetrales puede tener elementos medievales. Un pórtico cobija la entrada a la iglesia. Sobre él, en un nicho, hay una imagen de San Miguel Arcángel en actitud guerrera hecha en piedra.*



San Martin eliza - *Iglesia San Martín*

*Más información en página Web del Empleo Social Protegido de Irurtzun.*
*Informazio gehiago Irurtzungo Babestutako Enplegu Sozialeko Web orrian*

### Herri hustuak herriz herri

Berama.

Satrustegi hegoaldean dago, ordu erdira, mendi magalean. 1210eko urrian Antxo Azkarrak forua eman zion. 1350. urtean 10 zergadun zeuden Beraman. Etxarri Aranatz eta Uharte Arakilen birpopulazioengatik Iruñeko txantreak diru gutxiago jasotzen zuen, horregatik Beramako zalditegiaren 30 liberak eman zizkioten 1359ko ekainaren 11n. Bere eliza San Estebani eskainia zegoen; egun bisita daiteke nahiz eta teilatua botata izan. Sainduaren irudia 1973 aldera desagertu zen.

### *Despoblados pueblo a pueblo*

*Berama.*

*Despoblado situado a media hora al sur de Satrustegi, en las faldas del monte. En octubre de 1210 Sancho VII el Fuerte le dio fueros. En 1350 había en Berama 10 contribuyentes. Por las repoblaciones de Etxarri Aranatz y Uharte Arakil, La Chantria de Pamplona recibía menos dinero, en compensación por ello se le cedieron el 11 de junio de 1359 las 30 libras de la caballería de Berama. Su iglesia estaba dedicada a San Esteban, todavía hoy se puede visitar aunque su tejado está derruido. La imagen del santo desapareció en 1973.*





Berama herri hustuko elizaren bi irudi - *Dos perspectivas de la iglesia del despoblado de Berama*

## HERRI HUSTUAK

Denboran atzera eginez ibarraren giza okupazioa egungoaren ezberdina zela ikus daiteke. Egun 15 herri ditugun eremuan garai batean gutxienez 30 bat izan ziren. Eremuaren giza okupazioan aldaketa XIII. mendean azkartu zen. Gaztelak Nafarroako erresumari Araba eta Gipuzkoa kendu zizkion eta ibarra bi erresumen arteko muga bihurtu zen.

Gerora gaizkileen muga izateagatik ezaguna izan zen. Izan ere, Araba eta Gipuzkoatik lapur taldeak ibarrean sartu eta defentsarik ez zuten herrietan hainbat kalte sorrarazi zituzten. Ekonomiak ondoa joko zuen. Ibarreko biztanle askok segurtasun bila Iruñera edo Lizarrarantz egin zuten.

Lapur taldeei aurre egiteko eta ibarra jendez ez ustutzeko. Nafarroako erregeek foruak eta pribilegioak eman zizkien herriei. Horrekin batera, herri txikietako biztanleak defentsa izaera zuten herrietara bildu araziko dituzte. Horren adibide da Uharte Arakil.

Despopulatuetako biztanleak hartzen zituzten herriak haien lurrak ere hartzen zituzten. Gaur egun herrietan dauden baselizak garai bateko herrien elizak ziren. Lurrak bedeinkatzeko orain dela hamarkada batzuk arte egiten ziren prozesioek haiek batzen zituen ibilbidean. Haietako batzuk hainbat herrietako biztanleak biltzen zituen, esaterako, Itxasperriko Santiago ermitan egiten zena.

Lurralde antolaketa berriaren beste ondorio bat fazeriak izan ziren.

## *DESPOBLADOS*

*Mirando atrás puede verse que la ocupación humana del valle era distinta a la actual. En el espacio que hoy en día ocupan 15 pueblos en tiempos había al menos 30. El cambio en la ocupación humana del valle se aceleró en el siglo XIII. Castilla conquistó Álava y Guipúzcoa. El valle se convirtió en la frontera de dos reinos.*

*Posteriormente sería conocida como frontera de malhechores. Grupos de ladrones procedentes de Álava y Guipúzcoa entraban en el valle y provocaban daños en los pueblos indefensos. La economía tocó fondo. Muchos habitantes del valle buscaron la seguridad en Pamplona y Estella.*

*Para hacer frente a los ladrones y evitar la despoblación del valle, los reyes de Navarra dieron fueros y privilegios a los pueblos. Junto a esto, se obligó a los habitantes de pequeños pueblos a poblar los de carácter defensivo. Ejemplo de ello es Uharte Arakil.*

*Las poblaciones que acogían a los habitantes de los despoblados tomaban para sí sus tierras. Muchas de las ermitas que hay hoy en día en los pueblos son las iglesias de aquellos despoblados. Las procesiones para bendecir las tierras que se hacían hasta hace unas décadas unían esas ermitas en su recorrido. Algunas de ellas unían a habitantes de varios pueblos, por ejemplo la de la ermita de Santiago de Itxasperri.*

*Otra consecuencia de la nueva ocupación del territorio fueron las facerías, gestión común de varios pueblos de un terreno. v*


**Begiratutako bibliografia azpimagarriena:** Carasatorre Vidaurre, Rafael. Barranca Burunda. 59, 60, 61 eta 167 orriak. Autoedizioa. 1993. Sagredo Garde, Iñaki. Navarra. Castillos que defendieron el Reino. Tomo I. 315-317 eta 391-395 orriak. 2006. Iruñea. Pamiela argitaletxea. Auñamendi Eusko Entziklopedia. Auñamendi editoriala.

***Bibliografía consultada a destacar:*** *Carasatorre Vidaurre, Rafael. Barranca Burunda. Páginas 59, 60, 61 y 167. Autoedición. 1993. Sagredo Garde, Iñaki. Navarra. Castillos que defendieron el Reino. Tomo I. Páginas 315-317 y 391-395. 2006. Iruñea. Editorial Pamiela. Enciclopedia Auñamendi General Ilustrada del Pais Vasco. Editorial Auñamendi.*



cederna garalur

LEADER

FEADER

Nafarroako Gobernua

Fondo Europeo de Desarrollo Rural:
Europa invierte en zonas rurales /
Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa:
Europa landa eremuetan inbertitzen

Arruazuko Udala
Ayuntamiento de Arruazu

IRAÑETAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE IRAÑETA

IRURTZUN
UDALA-AYUNTAMIENTO

EMPLEO SOCIAL PROTEGIDO
GIZARTE ENPLEGU BABESTUA

IRURTZUN ESKUALDEKO
GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEA

MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS SOCIALES
DE LA ZONA DE IRURTZUN

un proyecto elegido por clientes de can